# Zurriolako Ataria

62. alea — 2019-05-24

## Argazki erakusketa ibiltaria




Datorren astean abiatuko da 50. urteurreneko **Argazki Erakusketa Ibiltaria**. 50 argazki aukeratu dira eta ikusleak aukera izango du argazki bakoitzak iradokitzen edo gogorarazten diona idatziz adierazteko.

- Maiatzak 28-31 Hurran.
- Ekainak 4-7 Ategorrietan.
- Ekainak 11-14 Soroan.

## Zurrimendi - Uliari bira



Zurrimendizaleek ere 50. urteurreneko ospakizunetan hartuko dute parte eta Kilometroak 2009ko ekitaldien barruan Zurriola Ikastolaren ekimenez homologatu zen bidea egingo dute. Horretaz gain, Aranzadi Elkarteko adituek hainbat azalpen emango dituzte eta Olatz Elizegi zenaren oroimenezko ekitalditxo bat egingo da. Animatu!

## Lanerako izangaien datutegia



Zurriola Ikastola lanerako izangaien datutegia berritzen ari da. Esteka honen bitartez, datuak bidal daitezke (*Curriculum Vitae* eta bestelako datuak).

## HH5ekoak Katxola baserrian



Maiatzaren 22an Katxola baserrira txangoa egin zuten 5 urteko haurrek. Sagardoa egiteko modua ezagutzeaz gain, herri kiroletan aritzeko aukera ere izan zuten, baita adarra eta txalaparta jotzekoa ere. Mendi buelta bat egin eta bazkaldu ondoren inguruaz gozatu zuten.

## LH1-2 baserriak



LH1ekoak Barria inguruan ibili diren bitartean, LH2koak, Arantzan izan dira.

## Igeriketako ikastaroen diploma banaketa



Asteartean GKAIko ikasleak Ategorrietan izan genituen igeriketako ikastaroaren diplomak banatzen, beraiek izan baitira LHko ikasleon aurtengo monitoreak.









**Zurriola Musika eta Dantza Eskola** - Emanaldi pedadogikoa 2019



**Zurriola Antzerki Eskola.** Sudurgorritxo - Maiatzak 27-28 / Klownolinpiadak - Maiatzak 29-30 / Inprobisaketak - Mikel - Maiatzak 31
18:00etan Hurrako Antzerki aretoan



IKASLE OHIEN BAZKARIA. Aurreko larunbatean giro ezin ederrean ikastolako ikasle ohien bazkaria egin zuten 50. urteurreneko ospakizunen aitzakiarekin.

## OHARRAK / AGENDA:

- **HH eta LH:** Guraso bilera orokorrak. Datak, orduak eta lekuen zehaztapena.
- **HH:** Sarrera irteeretan aldaketak. Zirkularra.
- **LH2:** LH5eko Chocolate Party antzezlana ikustera hurran. Taldeka. Maiatzak 28.
- **LH3:** Baserria Zugarramurdi. Ekainak 3-5. Zirkularra.
- **LH4:** Baserria Lizarra. Ekainak 3-5. Zirkularra.
- **LH5:** Baserria Sastarrain. Ekainak 3-5. Zirkularra.
- **LH6:** Baserria Zuhatza. Ekainak 3-5. Zirkularra.
- **LH5-6:** FIE ingeleseko murgilketa programa. Ekainak 10-20. Zirkularra.
- **BATXILERGOA:** Gurasoentzat egutegia. Batx1. Batx2.
- **Zurriola Antzerki Eskola:** Ikasleen emanaldiak.
- **Zurriola Musika Eskola:** Udaberri musikatua. Programazioa.
- **Zurriola Kirol Elkartea:** Batzar berezia. Maiatzak 11. Deialdia.
- **Eskola Kirola:** 24. jardunaldia. B (azkena)
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** Maiatzak 24-26.
- **Parketarrak:** Egunik onenak elkarrekin jolasean.





**ZURRIOLA IKASTOLA IKE**
Indianoene, 1 - 20013 Donostia.
943 272 587